

AZKOITIKO UDALAK ZABOR BILKETAN SISTEMA MISTO BERRIARI BURUZKO INFORME EKONOMIKOA

1.-AURREKARIAK

LEHENENGOA.-2013ko uztailaren 23ko Ingurumen batzordean, Hondakinen lan taldeko parte hartze prozesuaren ibilbidea azaldu ondoren, Hondakinen lan taldeak adosturiko Azkoitiko hondakinen kudeaketa ereduak bete beharko lituzkeen baldintzak azaldu ziren:

1. BILKETA EREDUAREN INGURUAN:

1.1 Sailkatze maila %70ekoa izatea ezarritakoan (2014) eta bi urteren epean %80 – 85era iristea. Ez bada betetzen neurri zuzentzaileak jarriko dira.

1.2 Gaika Bildutakoaren kalitatea bermatuko duen eredu izatea.

1.3 Errefusari ateak itxiko dizkion eredu izatea

2. HONDAKINAK SAILKATZEA HERRITAR GUZTION BETEBEHARRA DA

3. PREBENTZIO POLITIKAK BEHARREZKOAK DIRA

4. ADOSTUTAKO HAUETAN OINARRITUTAKO BILKETA EREDUA ZEHAZTERAKOAN IRIZPIDE TEKNIKOAK HARTUKO DIRA KONTUAN.

BIGARRENGOA.-2014ko maiatzaren 22an Ingurumen batzordean irizpena emango zaio bilketa sistema misto berriari

OINARRI JURIDIKO ETA EKONOMIKOAK

2.- AZTERKETA EKONOMIKOA

2.1- Serbitzu Elkartea SLk 2014ko apirilean txosten ekonomikoa egiten du sistema berriari buruzkoa.

Txosten hau eranstean zaio **1 Dokumentua** moduan.

Proposamen berriaren kostua honako hau litzateke:

**AZKOITIA
PROPOSAMEN BERRIA**

PUNTU BERDEA

2013rako guztizkoa	117.320,51 €
KPI	70,39 €
(1) 2014rako guztizkoa	117.390,91 €
BEZ	11.739,09 €
2014rako guztizkoa BEZ barne	129.130,00 €
Inbertsioak guztira	
(2) Guztira Inbertsioen amortizazioa	50.933,87 €

PUNTU EZ BERDEA

	Azkoitia
Recogida de RSU (Urbano, Rural e Industrialdea)	26.127,17 €
Recogida y transporte de mercados y mercadillos	2.873,31 €
Recogida selectiva y transporte de pilas	517,63 €
Limpieza de contenedores	28.124,59 €
Mantenimiento y reposición de contenedores	11.736,80 €
Servicios generales	36.060,00 €
Guztira Ustiapen gastuak	105.439,50 €
KPI (2009-2012) / Gastu orokorrak eta irabazi industrialak / Besteak	23.813,04 €
2013rako guztizkoa	129.252,54 €
KPI	77,55 €
2014rako guztizkoa	129.330,10 €
Zerbitzu Berriak:	
Recogida PAP Resto	258.695,70
Recogida 5° contenedor	
(3) 2014rako guztizkoa	388.025,79 €
BEZ	38.802,58 €
2014rako guztizkoa BEZ barne	426.828,37 €
Inbertsioak guztira	
(4) Guztira Inbertsioen amortizazioa	60.689,28 €
(1) + (2) + (3) + (4) = GUZTIRA BILKETA- TOTAL RECOGIDA SIN IVA	
	617.039,85 €

2.2.- Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitateak Serbitzu Elkarte SLk eginiko azterketa ekonomikoa berraztertzen du txosten batean.

Txosten hau eranstean zaio **2 dokumentua** moduan.

Txosten honetan Mankomunitateak ontzat jotzen du Serbitzuek eginiko azterketa eta Azkoiko Bilketaren kostua 617.039,85€tan baloratzen du.

2.3.- Mankomunitateak Azkoitian egungo kaleko edukiontzien bilketa sistemaren eta Azkoitiko Udalak eskatutako sistema misto berriaren arteko kostuen **konparaketa** egiten du era honetara.

Txosten hau eransten zaio **3 dokumentua** moduan

3.- 2014KO Udalaren aurrekontuan KREDITU EGOKIA EDO NAHIKOA EGOTEA

Kontuan hartuz gastu hauek izaera iraunkorrekoak eta segidako traktukoak direla, 21 /2003 Foru Arauak dioenari jarraituz txosten honetan hurrengo bi atalak aztertzen dira:

1.- 21/2003 Foru arauak 22.6 artikuluan dio konpromiso-kredituen orriaren barruan ez direla iraunkorrak diren gastuak eta segidako traktukoak sartuko.

2.-Ziurtatu beharra dago urteari dagokion gastuari aurre egiteko adina kreditu dagoela.

2014. URTEAN SISTEMA BERRI HONI DAGOKION GASTUA

A/ KREDITUA NAHIKOA MANKOMUNITATEAREN AZTERKETAREN ARABERA:

2013. urtetik abiatu behar da.

Mankomunitateak eginiko txostena oinarritzat hartuz, Azkoitiko balantzea era honetara laburbiltzen da sistema misto berriarekin %70eko gaikako bilketaren hipotesian oinarrituz:

KONPARAKETA

Datu ekonomiko hauek baldintzatuak daude birziklatze tasa %ko 70koa izatera

B/KREDITU NAHIKO ETA EGOKIA BIRZIKLATZE TASARA BALDINTZATURIK GABE,

Txosten honetan ziurtatu behar da espediente honetatik datozen hirugarrenetikiko konpromisoak finantzatzeko kreditu egokia edo nahikoa egotea.

Honetarako gaur egungo datuetatik abiatu beharko litzateke, hau da, gaur egun dagoen birziklatze porzentajearen arabera kostua zenbatekoa den jakin behar da.

Taulak hauek lirarteke:

BILKETA SISTEMA MISTOA	
BILKETA KOSTUA AZKOITIA	617.039,85
HEZITZAILEAK	47.362,33
TRATAMENDU GASTUAK AZKOITIA	425.440,27
SARRERAK AZKOITIA	123.703,08
GUZTIRA	966.139,37

KONPARAKETA

BILKETA SISTEMA MISTOA	966.139,37
EGUNGO BILKETA SISTEMA	861.100,84
KOSTUAREN HAUNDITZEA	105.038,53

Hau beti ere gertatuko litzateke birziklatze tasa gehituko ez balitz eta hau gerta daitekeen hipotesi ezkorrena litzateke, kontuan izanda sistema hau ezarri duten beste herrialdeetan birziklatze tasa nabarmen igo dela.

C/ BI HIPOTESIETAN UDALAREN KREDITUA NAHIKOA IZATEA.

Mankomunitateak emandako datuen arabera 2013. Urtean Udalak egin zuen ekarpena era honetara banatzen da:

2013 KO EKARPENA UDALAREN EKARPENA	919.142,61
MANKOMUNITATEAREN GERAKINAREKIN FINANTZIATUTAKOAZ AZKOITIARI	125.465,16
BILKETARI DAGOKION KOSTUA	861.100,84
EGITURAKO KOSTUA	182.506,93
GUZTIRA	1.043.607,77

Mankomunitateak ziurtatu du egiturako kostuak ez direla haunditzen Azkoitiak sistema misto berria onartuz gero.

Soilik hezitzaileen kostua gehitu beharko litzateke eta horiek bilketa sistema mistoaren kostea aztertzerakoan kontuan izan dira

	2014KO EKARPENA GAUR EGUNGO SISTEMA (Urtarrilatik ekainera)	2014KO EKARPENA SISTEMA BERRIA MANKOMUNITATE. AZTERKETAREN ARABERA (Uztailatik Abendura)	2014 KO EKARPENA HIPOTESI EZKORRENEAN(Uztailatik abendura)	2014ko URTEA GUZTIRA MANKOMUNITAT AZTERKETA KONTUAN HARTUZ	2014KO URTEA GUZTIRA HIPOTESI EZKORRENEAN
BILKETARI DAGOKION KOSTUA	430.550,42	356.344,75	484.518,89	786.895,17	915.069,31
EGITURAKO KOSTUA	91.253,46	91.253,46	91.253,46	182.506,93	182.506,93
GUZTIRA	522.077,64	447.598,21	576.046,11	969.402,10	1.098.123,75

(2013KO GASTUEI KP(A)0,3) GEHITU ZAIE 2014KO KALKULATZEKO)

D/ 2014KO AURREKONTUAN KONSIGNATURIK DAGOEN KREDITUA:

Azkoitiko Udalaren aurrekontuan Mankomunitatearen zerbitzuak zabor bilketa eta tratamendu arloan ordaintzeko, 1.114.168,98 euroko kontsignazioa dago “mankomunitatea zaborbilketa” izena duen partidan eta honako kodea duena 1 7000.227.442.10.08 2014. Beraz kreditu nahikoa dago zerbitzu hau finantzatzeko

Ondorioz Azkoitiko Udalak, zabor bilketa sistema misto berriaren zerbitzua ematea gauzatzeko kontuhartzailera honek 1 7000.227.442.10.08 partidan 576.046,11 €ko (uztailetik-abenduari dagokiona) kreditu erretserba egingo du aipaturiko zerbitzua finantzatzeko, beti ere hipotesi ezkorrena kontuan izanda.

Kreditu erretserba hau berraztertuko da berziklatze tasa aztertzen den adinean, tasa hau igotzen den proportzio berberan murriztuz.

Azkoitian, 2013ko maiatzaren 21ean
Kontuhartzaileak